

Urigintzako Kontseilu Sektorialaren 123. batzarraren akta

2014/01/13

Data/Fecha: 2014/01/13	Ordua/Hora: 18:00	Lekua/Lugar : Udaletxea
Urigintzako Kontseilu Sektoriala/Consejo Sectorial de Urbanismo Idazkaria/Secretario: Julen		
Ez etorriak /Ausentes: Alexandra Miranda Jose Luis Urkijo Tomás Ordeñana Ainhoa Etxezarreta Juan Manuel Basterretxea Eunate Guarrotxena	Bertaratuak /Asistentes: Eduardo Cordero Asun Gaztelu Alberto Albaizar Oihane Ruiz (udaletxeko arkitektoa)/ Ana Mezo Julen Alvarez Aitor (Estudio K) Nerea Salcedo (Estudio K)	
Eztabaidatutako gaiak/Asuntos tratados : <ol style="list-style-type: none">1. 122. aktaren onarpena. /Aprobar acta 122.2. Batzarra Estudio Krekin. Egiteke dauden lanak/Reunión con Estudio K. Trabajos pendientes3. Unitateei buruzko informazioa/Información sobre unidades de ejecución4. Konpostaje planta/Planta de compostaje5. Burdin Hesia/Cinturón de Hierro6. Etxebizitza kopurua justifikatzeko txostena/Informe de justificación residencial7. Lanak aurkezteko egutegia/Calendario de trabajo.		

Eztabaidatutako gaiak /Asuntos tratados

1. **122. akta onartzen da./** Se aprueba el acta 122.
2. **Batzarra Estudio Krekin. Egiteke dauden lanak. Aitor eta Nerea datoz Kontseilura orain arte zer egin den eta zer falta den ondo zehazteko asmoz. Horretarako, falta zaien dokumentazioa zerrendatzen da, ahalik eta lasterren helarazteko asmoz.** /Reunión con Estudio K. Trabajos pendientes. Aitor y Nerea vienen al Consejo con intención de concretar qué se ha hecho hasta el momento y qué es lo que falta. Para ello, se informa de la documentación que les falta, con intención de hacérsela llegar lo antes posible.
3. **Unitateei buruzko informazioa. Erredentsifikazioaren ondorioz ateratzen diren etxebizitza kopuruak erkatzen dira bi aldeetatik datuak bat datozela ziurtatzeko. Bestalde, eta 4.5 unitatean URA agentziak jarri dituen eragozpenen haritik, pentsatzen da koherenteena dela Zubitaldeko merkataritza lokalei etxebizitza bihurtzeko aukerarik ez ematea, uholde-aldearen barruan egoteagatik. Unitate berriei dagokienez, konponbiderik onena konbenioak betetzeko bi unitate eratzea da, batean etxebizitza soziala eta bestean librea taldekatu ahal izateko. Estudio K-k ziurtatu behar du horrela bi konbenioak arazorik gabe beteko direla.**/Información sobre unidades de ejecución. Se comparan por las dos partes las cifras de viviendas resultantes de cada unidad redensificada, con el fin de asegurarse que los datos son iguales. Por otro lado, y en la misma dirección de las limitaciones que la agencia URA ha impuesto en la unidad 4.5., se considera que lo más coherente es no dar opción de conversión en vivienda a los locales comerciales de Zubitalde que estén dentro de la mancha de inundabilidad. En cuanto a las unidades nuevas, se dice que la mejor solución sería crear dos unidades, una que agrupe la vivienda protegida y otra que agrupe la libre, para así poder asegurarse que se cumplen los dos convenios sin ningún problema. Estudio K debe asegurar que dicho cumplimiento se llevará a cabo sin problema alguno.

4. **Konpostaje planta. Estudio K-k zalantza dauka tamainarekin, eta esaten zaio 450 bat etxebizitzarako izango litzatekeela. Bestalde, hiru kokapen ematen zaizkie haien ustez zein izan daitekeen egokiena erabakitzeke.**/Planta de compostaje. Estudio K tiene una duda con el tamaño, y se le responde que sería utilizada para unas 450 viviendas. Por otro lado, se le dan a Estudio K tres localizaciones para que opine cuál puede ser la mejor.
5. **Burdin Hesia. Proposatzen da elementu guztiak inbentario batean jasotzea gero katalogo bihurtu ahal izateke.**/Cinturón de Hierro. Se propone recoger todos los elementos existentes en un catálogo para posteriormente poder diseñar un catálogo con ellos.
6. **Etxebizitza kopurua justifikatzeko txostena. COPTVri begira, Planak jasoko duen etxebizitza berrien kopurua justifikatuko lukeen txosten bat txertatzea interesgarri ikusten da. Bertan etxebizitza berriak, hutsak, etxebizitza bihurtzeko aukera izango duten merkataritza-lokalak, erredentsifikazioak eta eraiki barik dauden partzelak islatuko dira.**/Informe de justificación residencial. De cara a la COPTV, se juzga interesante insertar un informe que justifique el número de vivienda nueva que va a recoger el Plan. En dicho informe se reflejarán las nuevas viviendas, las vacías, los locales comerciales susceptibles de convertirse en vivienda, las redensificaciones y las parcelas no construidas.
7. **Lanak aurkezteko egutegia. Falta diren lanak amaitzeko egutegi bat zehaztu nahi da. Dokumentua epeka aurkeztu beharrean, hasierako onarpenerako dokumentu osoa emateko proposamena egiten da. Bi asteko epea ematen da falta den dokumentazio guztia Estudio Kren esku jartzeko. Estudio K-k 0 Dokumentua otsailaren 14an aurkezteko konpromisoa hartu du. Kontseiluak beste 2 aste izango ditu (otsailaren 28a arte) egoki ikusten dituen aldaketak proposatzeko. Asmoa da hasierako onarpena martxoan egitea.**/Calendario de trabajo. Se quiere concretar un calendario para terminar los trabajos pendientes. Se propone entregar todo el documento para la aprobación inicial, en vez de hacerlo en partes. Se delimita un plazo de dos semanas para hacer llegar a Estudio K toda la documentación pendiente. Estudio K asume el compromiso de entregar el Documento 0 el día 14 de febrero. El Consejo tendrá otras dos semanas (hasta el 28 de febrero) para proponer los cambios que estime oportuno. El propósito es llevar a cabo la aprobación inicial en marzo.

Hurrengo ohiko batzarrerako deialdia. / Próxima reunión ordinaria:

Hurrengo batzarrerako data/Próxima reunión: 2014/01/27 27/01/2014	Non/Lugar: Udaletxea/Ayuntamiento	Ordua/Ho 18:00ean
---	---	-----------------------------

Gaia	Denbora
1. Aurreko bileran banatutako lanen azterketa. /Análisis de los trabajos repartidos en la reunión anterior.	30 min. 90 min.
2. Unitateei buruzko informazioa. /Información acerca de las diferentes unidades.	